

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

DONEMILIAGAKO UDALA

Donemiliagako udalerrian umeak izan, adoptatu edo etxean hartzeagatik ematen diren laguntzen deialdia jasotzen duen 2026ko martxoaren 10eko erabakiaren laburpena

BDNS (Identif.): 900963.

Bat etorri Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan jasotakoarekin, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Deialdiaren testu osoa Dirulaguntzen Datu Base Nazionalean dago ikusgai: <https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convocatoria/900963>.

Deialdiaren xedea

Dirulaguntzak ematea Donemiliagako udalerrian umeak izan, adoptatu edo etxean hartzeagatik, udalerria osatzen duten herrietan belaunaldi berritzaia ziurtatzeko.

Onuradunak

Umea izan edo adoptatu aurreko bi urteetan, jarraian, Donemiliagako udalerrian erroldatuta egon diren eta bertan bizi diren aitak, amak, legezko tutoreak edo harrera familiak.

Betekizunak

– 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean (egun biak barne), Donemiliagako udalerrian jaiotako eta erroldatutako umeak izatea.

– 2025eko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean (egun biak barne), Donemiliagako udalerrian erroldatuta dauden adoptatutako edo etxean hartutako umeak izatea.

Laguntzaren eskatzaileak, laguntzaren onuradunak, udalerrian bi urtez jarraian egon behar du erroldatuta, umea izan, adoptatu edo etxean hartu aurretik. Gehienez lau hilabetez egon daiteke erroldatu gabe bi urteko epean, eta bai berak, bai umeak erroldatuta jarraitu behar dute beste bi urtez, gutxienez, jaiotza edo adopzioaren ostean. Eskatzailea udalerrian erroldatu berria bada eta, ondorioz, bi urte baino gutxiago badaramatza erroldatuta, laguntza eskatu ahal izango du, baldin eta jaiotzaren edo adopzioaren ondorengo bi urteetan, gutxienez, bere eta haurraren erroldari eutsiko diola agintzen badu.

Oinarri arautzaileak

Donemiliagako Udalbatzak 2026ko martxoaren 10ean egindako bilkuran onetsiak.

Laguntzaren zenbatekoa

Dirulaguntza 231 480001 aurrekontu aplikazioaren kontura emango da, 1000,00 euroko zenbatekoarekin. Laguntzaren zenbatekoa 600,00 euro izango da.

Eskaerak aurkezteko epea

Eskaerak aurkezteko epea 2026ko uztailaren 14an bukatuko da.

Erdoñana, 2026ko apirilaren 22a

Alkatea

ERIKA LETAMENDI HURTADO